

BITORIAKO BATAILAKO TESTIGANTZA EDO FRANTSESTEAREN BUKAERAKO KOPLA BATZUEN GAINEAN

SARRERA

Kontu ezaguna da ahozko euskal literaturako testigantza zaharregirik ez dugula. Testigantza zaharregiak diogunean, literatura tradizional zaharraren bilketa zaharrez ari gara. Digutun ahozko bitxi zaharrenetakoak orain dela berrehunen bat urte jasoak dira. Frantsestea baino lehenago bildutako tradiziozko bertso edo koplak gutxi ditugu. Gure oraingo lantto honetan Bitoriako Batailako berri ematen duten koplak batzuk eman nahi genituzke argitara. Lantto honetan argitara emango ditugun bertso hauek ez daude, guk uste, beste inon argitaraturik. Guk koplak eman ez ezik, testua ere finkatzen ahaleginduko gara. Bertsoak hobeki ulertzeko zehaztasun historiko zehatzik ez dugu hemen emango. Zehaztasun bat edo beste, irazean eta gaingiroki bada ere, emango dugu. Bitoriako Batailaren gainean bibliografia handia dago, eta zerbait baino gehiago irakurri badugu ere, ez dugu horren berri handirik emango. Gure lanttoa apalagoa da, ezinbestean. Alderdi historikoa barik herri literaturako testigantza xume bezain baliotsu bat ematea da gure helburua.

1813KO EKAINAREN 21EKO BITORIAKO BATAILA FAMATUA

Wellington dukearen gidaritzapean, Bitoriako lautadan, hiri-gunctik hurbil xamar, 1813ko ekainaren 13an, frantses armada inperiala azpiratua izan zen. Hondamendia hondamendiaren gainean izan omen zuten Napoleonen armadak. Lehen kolpe handia 1812ko bukaera aldera izan zuten, Errusian garaituak izan zirenean. Jose I.ak, Napoleonen anaik, Pepe Botella ezizenez ezagunagoak, Madril utzi eta Valladoliden jarri zuen bere Gorte eta Gobernua, 1813ko martxoaren 17an. Wellingtonen tropak Portugaletik atera, eta Galiziako soldaduz horniturik, tropa frantsesak pertsekutatzen dituzte. Jose lehena Bitoriako lautadara ailegatzen da 1813ko ekainaren 19an. Ekainaren 20an frantses armadako zati handi batek, 3000 ibilgailu gutxi gorabehera, aurrera segitzen du bere ihesean. Gainerakoak arerioari aurre egiteko prestatu ziren. Frantses armada inperialak 57.000 gerra-gizon zituen gerrarako prest. Tropa aliatuak askoz ugariago ziren 78.000 gizon, Espainiakoak eta Europako hainbat lurraldetakoak: portugaldarrak, italiarrak, polakoak, britaniarrak, alemandarrak...

Batailak hiru leku desberdin izan zituen. Arabako Bitoriako lautadako 18 kilometroan jo zen bataila. Goizeko zortzietatik arratsaldeko hiruak arte iraun zuen sualdiak. Hondamendia ikaragarri handia izan zen.

Bataila ezagutu zutenen testigantzak leku batean baino gehiagotan ikusiko du irakurle jakinminosoak. Liburu polit bat *Commemoración de la Batalla de Vitoria en su 150 aniversario 1813-1963*, Diputación cultural de Álava, Consejo de Cultura, 1963. Badago liburu elebidun bat, gaztelaniaz eta ingelesez egile askoren artean egina: *La Batalla de Vitoria 175 años después/ The Battle of Vitoria 175 years afterwards*, Arabako Foru Aldundia, 1988. Aita Zavalak bi obra darabiltza batez ere Bataila iruzkintzeko Conde de Toreno-ren *Historia del levantamiento, guerra y revolución España* eta George Roux-en *La guerra napoleónica de España*.

Esan beharrik ez dago Bitoriako Bataila hau dela eta, Napoleonen armadak jasan zuen galera handiaren ondoren, inperioaren asmo handi eta goitarrak gainbera bizian joan zirela. Begien bistako kontu bat da, beste alde batetik, behialako frantses armada inperiala asko ahuldu zela bataila honez gero. Begien bistakoa da, era berean, frantses armadan zeuden soldadu andana handi bat Iparraldeko euskaldunez osatua izango zela. Napoleon Elbako irlara deserritua izan zen 1914ko apirilean. 1815ean, ordea, Elbako irlatik alde egin eta Frantziako buruzagi jarri zen. Ehun egun iraun ondoren Wellingtonek berriro ere, eta behin betiko azpiratu eta hautsa janarazi zion Waterlooko bataila famatuan, garagarrilaren 18an. Batailaren ondoren, denok dakigunez, Santa Elena irlara deserritua izan zen Napoleon.

Bada kontu polit bat, azkenik, puntu honetan aipatu gabe utzi nahi ez nukeena. Jose de Artecheren erdal lanak irakurtzen ari nintzela ixtorio harrigarri bat irakurri nuen. Ihesean zihuan frantses soldadu bat Aretxabaleta (inguru honetako mendi-etxe batera, buruak huts egiten ez badit) inguruko baserri batera hurbildu, bertakoek errukitu eta baserrian izan omen zuten morroi hil arteko guztian.

FRANTSESTEKO BERTSO-SAILEN BILDUMAK: ANTONIO ZAVALAREN SAILA

Antonio Zavalaren Auspoa bilduma zoragarriko 212 eta 213 zenbakietan bilduak daude frantsezteko bertsoak. Liburuaren izenburua *Frantsezteko bertsoak I eta II*, Auspoa liburutegia, Estella 1991. Bi liburu hauetan dauden bertso eta koplak zehaztasun jakingarriz ondo horniturik daude. Ez dago esan beharrik datu historikoez gainera bertsoen iturri, doinu eta jatorri-zertzeladak ondo jasoak daudela. Guri dagozkigun 1813ko Bitoriako Batailakoak lehen tomoan 123-130 orrialdeetan, aurkituko ditu bila dabilenak. Iraizean liburuko atal gehiagotan agertzen dira Bataila horren ingurumen edo datuak. Beste pasarte bat aipatzekotan liburu bereko 137 eta 144 orrialdeei dagokiena izango genuke. Guk liburu horretako Batailari dagozkion bertso saila ekarriko dugu puntu honetara:

1
 Biba tropa españolak,
 biba Bitoria,
 andikan agertu jaku
 guretzat argia.
 Ain ekarren españolak
 balore andia,
 zatitu ta erreteko
 frantzesak guztia.
*Napoleonen anaia,
 errege botilla,
 traguak edateko
 aura zan mutilla.
 Ondoren dituela
 Longa eta Mina,
 basoan galdu ei dau
 bere espadina.*

2
 Lau milla prisioneru,
 amar milla illak,
 lenengo entradea
 Longa'ren mutillak.
 Geureak bazirean
 batzuk-batzuk illak,
 arek zerura ziran
 ziralako finak.
Napoleonen anaia...

3
 Kotxe ta karromato,
 litera ta burdi,
 Bitoria'n gelditu da
 ondasuna lodi.
 Gainera artilleria
 bertan dabe itxi,
 frantzesen erregeentzat
 ezta lotsa gitxi.
Napoleonen anaia...

4
 Mina ta Pastorea,
 Longa irugarren,
 Mugartegi jarri da
 Bizkaia'n laugarren.
 Aren ejerzituak
 ikusi ezkerro,
 ezin leike fuertzarik
 frantsesak geiago.
Napoleonen anaia...

Azkuek Ereñon bildu zituen bertso hauek erabiliko ditugu guk hona ekarriko dugun sailarekin alderatzeko. Bertso haue-zaz gainera, liburuan han-hor-hemen dauden bertso puskaren bat edo beste ere iruzkinduko dugu.

JUAN KARLOS GERRAREN TRANSKRIPZIOA

Juan Karlos Gerrak behin baino gehiagotan txertatzen ditu bere lanetan frantseseko bertsoak. Hona, esaterako, *Estudios de heráldica vasca* liburuan¹ dioena, 443 or.:

Aquella fué una campaña popularísima. Yo alcancé veteranos y testigos presenciales de ella que llamaban a Lord Wellington “D. Melitón; y todavía durante mi infancia, se cantaban en mi casa coplas de los versolaris que la estimularon y de las que recuerdo una:

“Napoleonen anaya
Erregue Botillá,
Ardau ona erateko
Urá bay mutillá”.

Vencidos los franceses, se estableció la normalidad del régimen foral en las Juntas Generales de Deva el año 1813, y en ellas volvió a ocupar el Doctor Guerra el año 1813, y en ellas volvió a ocupar el Doctor Guerra el puesto de Asesor presidente, que siguió desempeñando hasta la revolución de 1820, otro vez, se abolieron los Fueros.” Juan Karlos Gerrak bere eskuidatzietan, zorionez, koplaxo hau baino zerbait gehiago bildu zuen: hamar koplako sail zoragarri bat. J. K. Gerraren eskuidatzietan, 4837 zenbakidunean, “Euskal bertso eta kantak” sailean 47 zenbakian sail polit bat aurkitu dugu. Hona transkribatuko dugun sailak baidu azalpen bat. Hona zer dioen J. K. Gerrak: Enséñome estas canciones Josefa Barrutia (a. Irriquitu) anciana octogenaria que las aprendió en el tiempo en que fueron compuestas, allá cuando la guerra de la Independencia, siendo ella jóven”.

Paper batean biltzen duen kanta eta zehaztasun hau J. K. Gerraren esku-letraz idatzia dago. Bilduma horretan badira beste letra batzuk baina guri dagokigun honetan ez daukagu gutxieneko dudarik. Hona hitzez hitz transkribaturik:

¹ Nik erabili dudan argitaraldia IIIgarrena da. Editado por la librería Internacional Churruca 6, 1927.

1
Milla sortzireun
da sortzigarrenian
frantzes a espãñara
etorri zanian.

2
Orduan traidoriac
artu dute poza
Etzalaco etorrìco
ona ingelesa.

3
Miña eta Longa
Don Gaspar irugarren
Mugartegi jarri jacun
Vizcayan laugarren.

4
Arei ejercitua
icusi esquero
frandes ecin leique
besteric gueyago

5
Dn Gaspar de Jauregui
Villarrialgo semia
letra ta escolaric
batere baguia.

6
D. Gaspar Jauregui
Teniente Coronel
Bi milla voluntarijueñ
jabe egin ciñen.

7
Aren ejercituac
icusi esquero
frandesas ecin leique
fuerzatic gueyago.

8
Baguillaco illaren
Ogueta batian
sembat frances Vitorijen
il da jarri ciran.

9
Aparte artillerijha
Esa abere guchi
frances erregue orrec
bertan ditu utsi.

10
Napoleon anaya
Erregue Botilla
Traguac erateco
ura bay mutilla.

GURE KANTAREN IRUZKIN LABURRAK HITZEZ HITZ

Goragoko puntuan emandako berriez gain ez dago besterik. Kantako estrofak batera idatzirik daudenez gero, ahapaldietan jartzea eta zenbakitzea gure zeregina izan da. Nola banatu koplatan eta zortzikoetan? Zortziko txikietan banatuz ge-

milha bostoiem
 da notuigueren
 frantzes espantse
 etorizarian
 ordnan baidorice
 artudate pira
~~Et~~ etorice
 ouc ingelen
 mina ete lauge
 Don Jusepe iugaren
 Mugartezi jarizien
 Vizcayan langarre

Orea eperitua
 icur esquero
 frances ^{ein liege} ~~erregat orre~~
 besterie quezqap
 Don Jusepe de Zamozzi
 Villacarricazo mina
 letra ta escolaric
 batere brigada
 Don Jusepe de Zamozzi
 teniente coronel
 Birnill. voluntariyha
 Zake egin cinen

Orea eperitua 87
 icur esquero
 frances ein liege
 besterie quezqap
 Baguillaco ilaren
 O. ~~in~~ batian
 sembad frances Vitoriyha
 il de jami ciran
 Aparte artilleriyha
 esabere quebi
 frances errega orre
 bertan ditu etsi
 Napoleon anaya
 Oregui Botill
 teraque esateco
 uca bay motilla

Ensinome etas caucias Josepe
 Barrutia (a Brigada) anaiam orrege
 nris que los aprendio en el tien
 po en que fueron conpados, alla
 cuando lo guerra de la independencia
 siendo ella joven

(87)

ro, puntu diferenteko ahapaldiak sortzen direnez gero, kople-tan banatzeari hobeto eritzi diogu. Kontuan izan behar dugu, gainera, gerora, herri tradizioan, konposizio luzeagoa zena koplak sakabanatuetan bizi izan dela. Ataltxo honetan ahapaldiz ahapaldi gure grafiara ekarri eta banan-banan iruzkin labur batzuk egingo ditugu.

1.-*Milla zortzireun da/ zortzigarrenian,/ frantzesak Españara/ etorri zanian.*

Lehen ahapaldi honetan Independentzia gerrako lehen data agertzen da 1808. Gerraren datak, hasera-bukaerakoak, 1808-1814 dira. Guk ahapaldiko neurrietan sartzeko Gerrak ez bezala tolestu ditugu koplalerroak.

2.-*Orduan traidoriak/ artu dute poza,/ etzalako etorriko/ ona ingelesa.*

Esan beharrik ez dago traidoriak frantsesak direla eta laguntzaileak ingelesak. Wellington dukearen buruzagitzapean garaitu zituzten aliatuek frantsesak. Ingelesa, antonomasiak, Wellington bera da.

3.-*Miña eta Longa,/ don Gaspar irugarren,/ Mugartegi jarri jakun/ Bizkaian laugarren.*

Antonio Zavalaren bertsoetan desberdin da *Mina ta Pastorea/ Longa irugarren, Mugartegi jarri da Bizkaia'n laugarren*. Longa honen gainean honelaxe dio Aita Zavalak: "Frantzisko Longa hori, frantzesen aurkako gerrillerorik famatuenetako bat izan zan. Mallabia'n, Longa baserrian, jaioa omen zan. Araba, Bizkaia, Santander eta Burgos'ko probintzietan egin zituan bere gerra-ibillerak. Baita ondoren Gipuzkoa'n eta Bidasoa'z ipar aldean ere. Baiña kondaira-liburuak diotenez, leenengo erasoak etzuan berak jo, Gasteiz'ko burruka-aldi ontan. Bera Murgia aldetik zetorren, ezkerreko egaletik. Eta eskubiko egalekoak asi omen ziran. La Puebla'ko menditartetik barrena". Franzisko Longa honen oroitarri bat Markinatik hurbil dagoen Bolibarko herriko plazan bertan dago. Ohargarria

da J. P. Astarloa (1751-1821) idazleak 1816ko *Urteco domeca* liburuan egiten dizkion gorazarre-hitzak. Hiru gerra-gizon hauek, bestalde, behin baino gehiagotan agertzen dira bertsoetan. Hona Frantsesteko bertsoak I, 103or, 9-*Nere lagunak, ez ikaratu/ ausentu onetan geiagi,/ iru nagusi baditugu ta/ segi daiegun berari./ bata da Mina, bestea Longa,/ biba Don Gaspar Jauregi!*

4.-*Aren ejerzitua/ ikusi ezkeru,/ frances ezin leioe/ besterik geiago.*

Ahapaldi hau da iluntxoena. Lehen idazkeran *frances erre-gue orrec* kopla-lerroko “erregue orrec” ezabatu eta gainean ecin “leique” edo “leioe” ikusten delako.

5.-*Don Gaspar de Jauregi/ Villarrialgo semia,/ letra ta eskolarik/ batere bagia.*

Ahapaldi hau erabat txukun eta garbia dugu. Gaspar de Jauregui y Jauregui (1791-1844) gerrari famatua izan zen. Gaspar (de) Jauregi 1810ean Napoleonen kontra altxatu zen bat ere eskolatu gabeko artzain bat omen zen . Gerrarako sen apartekoa izan zuen eta Napoleonen mezulari eta gerragizon talde txikiei erasoak eginez apurka apurka fama handia hartu omen zuen. Denborara benetako gerrari bihurtu zen artzain soil baten historia dugu Gaspar Jauregirena. A. Zavalaren bertsoetan ere agertzen da “pastorea” izengoitia duela. Ohargarria da orduan ere Bizkaia partean “pastorea” esango ziotela Gipuzkoan “artzai” izenez ezaguna zen gerra-gizona.

6.-*Don Gaspar de Jauregi/ teniente koronel,/ bimilla boluntarixuen/ jabe egin ziñen.*

Euskal Herriko gerra-gizon herrikoi edo popularrenetakoa izan zen, goraxeago esan dugunez D. Gaspar de Jauregi. Zenbat gizonen buru izan zen dio ahapaldi honetan. Zavalaren Frantzezteko bertsoak I, honelaxe biltzen du 105 orrialdeko ale batek: *D. Gaspar de Jauregi/ Billarreal'ko semea,/ ondo gober-*

natzen du/ ark bere jendea. /Ea pastorcito/ de la Trinidad,/ Gaspar es comandante/ de la partida.

7.-*Aren ejerzituak/ ikusi ezkerro/ francesas ezin leike/ fuerzarik gehiago.*

Berriro ere gure protagonistaren laudorioan egindako koplak.

8.-*Bagillako illaren/ ogeta batian,/ zenbat frances Bitorixan/ ilda jarri ziran.*

Balio handiko ahapaldia dugu hau. Guk dakigula lehenengoz dokumentatzen da Bitoriako batailaren data. Ohargarria da mendebaldeko euskararen tradizioz erabili ohi zen hilabetea datorrela: bagilla. Ahapaldi honek zalantzatxo bat sortu digu jarri aditzak ba ote du hizkiren bat ondoan? "Jarri" bere hutsean ulergarriago delakoan halaxe transkribatu dugu.

9.-*Aparte artillerixa/ ez abere gutxi,/ frances errege orrek/ bertan ditu utzi.*

Garai hartako kronika idatzietan behin eta berriro agertzen da frantsesek beren ihes larrian utzitako artilleria ibilgailu eta abarrak. Ahapaldi honek dudaren bat sortzen du. Nola irakurri behar da *ez abere gutxi* edo *ez(p)abere gutxi?* Bestela esan nola irakurri behar da *ez abere* edo *ezpabere?* Bi aukera hauetarik lehenari ederretsi diogu.

10.-*Napoleonen anaia/ errege Botilla,/ traguak erateko/ ura bai mutilla.*

Ahapaldi famatua J. K. Gerrak bere *Estudios de Heráldica vasca* lanean ere agertzen da.

Xabier Kaltzakorta